



PROGRAMAZIO LABURTUA

IKASTETXEAREN IZENA	AIXERROTA BHI					KODEA: 015109	2015 - 2016					
ARLOA	HISTORIA GARAIIKIDEA						DATA					
MAILA	DBH 1		DBH 2		DBH 3		DBH 4		DBHO 1	X	DBHO 2	

1	ARLOAREN GUTXIENGO HELBURUAK GAITASUN MODUAN ADIERAZITA
<p>Mundu garaikidearen gertaera eta prozesu historiko aipagarrienak ulertzea, espazioan eta denboran kokatzea, haien ezaugarri diren elementu ekonomikokoak, sozialak, politikoak, teknologikoak eta kulturalak identifikatzea, eta haiek osatzen dituzten ezaugarriak esanguratsuenak, elkarren arteko loturak eta faktoreak aipatzea.</p> <p><u>Idatzizko zein ahozko EUSKERAZKO KOMUNIKAZIOA HOBETZEA.</u></p> <p><u>Oinarritzko kontzeptu eta terminologia erabiltzen jakitea.</u></p> <p><u>Testu, grafikoak, mapak, ardatz kronologikoak egiten eta interpretatzen jakitea.</u></p> <p><u>Demokrazia, askatasuna eta elkartasuna kontzeptuak modu positiboan balioztatzea arazo sozialen aurrean, balio demokratikoen defentsaren aldeko eta bidegabekeria eta bereizkeria-egoeren aurkako konpromisoa hartuz.</u></p>	

2	EDUKIEN DENBORALIZAZIOA		
	1. ebaluazioa	2. ebaluazioa	3. ebaluazioa
	MUNDU GARAIIKIDEAREN HASTAPENAK .- Europa Antzinako Erregimenean .- Lehen Industria Iraultza .- Mugimendu Liberalak eta Nazionalak (1789-1871) .- Langile Mugimendua. .- Mundua Europaren mendean (1870-1914)	XX. MENDEAREN LEHEN ERDIKO TIRABIRAK ETA GATAZKAK .-Lehen Mundu Gerra(1914-1918) .-Sobietar Iraultza eta SESB .-Gerra Arteko Garaiko Ekonomia .-Demokraziak eta Totalitarismoak .-Bigarren Mundu gerra(1939-1945)	POLO BIKO MUNDUA .-Gerra Hotza eta Bloke Politika .- Mundua bloketan zatituta (1945-1991) .-Deskolonizatzea eta Hirugarren Mundua (1945-1991) .-Europar Batasuna eratzea .-Gaur Egungo Mundua

3	IRAKAS PROZESUAN ERABILTZEN DEN METODOLOGIA
<p>Gaiaren hasieran zer ikusiko dugunaren eskema orokor bat jasoko du ikasleak, edota bestela argituko zaie zer den menperatu beharko dutena (eduki kontzeptualei buruz) eta baita ere landuko beharko dituzten prozedurak (ardatz kronologikoak, komentarioak, definizioak, sintesiak eta ahozko azalpenak).</p> <p>Testu liburuaren erabilera ezinbestekoa da euskara maila eta ulermena hobetzeko .</p> <p>Irakaslearen sarrerako azalpenaren ostean klasean bertan eta jarrera aktiboa mantenduz beti ere, eurek gaia irakurri eta azpimarratuko dute, dituzten zalantzak guri galdetu ahal izateko eta etxean egingo dituzten gaiari lotutako ariketak, hurrengo egunean zuzenduko dira ahoz gora..</p> <p>Jarrera aktiboak bultzatzeko klasean, mapak, ardatz kronologikoak eta iruzkinak sarritan egingo ditugu. Definizioak noizbehinka arbelean zuzenduko dira , ohar daitezen zelan egin behar diren. Euren ahozko azalpenak ere bideratuko ditugu gelan helburu pedagogiko berberarekin.</p>	

4	BALIABIDEAK
TESTU LIBURUA: (zertarako erabiltzen den argitu) MUNDU GARAIIKIDEAREN HISTORIA ARGITALETXEA: VICENS VIVES Informazioa irakurtzeko eta azpimarratzeko. Gaiaren amaierako eskemak bertatik ere ikasteko. Beste eratako jarduerak(ariketak, kontzeptuzko mapak, testuak,hiztegia, argazkiak) lantzeko.	Testuak, mapak, atlasak, entziklopediak, prentsa. filmeak, bideoak, DVDak, CDak, Internet..... IKT: Power point, eskemak, argitaletxeek argitaratutako material digitala , dokumentalak



5

**EBALUAZIO-IRIZPIDEAK, ADIERAZLEAK,
EBALUAZTZEKO TEKNIKAK ETA TRESNAK, KALIFIKAZIO IRIZPIDEAK****Ebaluazio irizpideak:**

1. Antzinako Erregimeneko krisitik Lehen Mundu Gerrara arte gertatu ziren aldaketa nagusiak identifikatzea eta bereiztea esparru ugarietan, munduko eremu ugarietan izandako eragin maila zehaztea, eta potentzia handien rol hegemonikoa eta haien inperio kolonialak eta haien artean sortu ziren gatazkak aipatzea.
2. XIX. eta XX. mendeetako munduko historiako prozesu eta gertaerarik esanguratsuenak modu kronologikoan kokatzea, banakako ekintzaren eta portaera kolektiboen artean dagoen lotura landuz.
3. XX. mendean estatuen arteko loturak zuzentzen dituzten arauak eta interesak identifikatzea, gatazka beliko handi baten kausak eta nazioarteko harremanak antolatzeke erabili ohi diren arbitrajeko mekanismo nagusiak sakon aztertuz, bakea eta nazioarteko segurtasuna mantentzeko duten eragingarritasuna balioztatuz.
4. Parlamentu-sistemen erakundearen eta antolaketaren oinarri diren printzipioak, pixkanakako garapenean eragina izan duten, eta gorabehera historiko jakin batzuetan, erregimen demokratikoak porrot egitea ahalbidetu duten faktoreak identifikatzea eta azaltzea.
5. Kronologikoki kokatzea eta munduko ekonomia garaikideak jasan dituen hedapeneko eta atzerapeneko aldien ezaugarriak bereiztea kasu esanguratsu baten bidez, harreman sozialetan, bizimoduetan, lanpostuetan eta nazioarteko politikan kutsu bateko zein besteko aldiek dituzten eraginak zehaztuz.
6. XX. mendean deskolonizazio prozesua jasan zuen herrialderen baten eboluzio historikoa laburtzea, ezaugarri eta arazo nagusiak identifikatuz, esperientzia kolonialarekin dituen lotura posibleak ezarritz edo, dagokionean, elkarrekiko lotura duen munduaren egungo egoera finkatuz.
7. Europar Batasunaren egungo osaera deskribatzea, mundu mailako testuinguruan duen esanahia eta presentzia kontuan hartuta.
8. XX. mendeko azken herenetik munduan gertatu diren eraldaketarik garrantzitsuenak bereiztea botere-gune berrien existentzia balioztatuz eta globalizazioak alderdi politikoan, ekonomikoan eta kulturean izan duen eragina kontuan hartuz.
9. Hainbat iturritatik hartutako iraganari buruzko informazioa lortzea eta aztertzea, haien garrantzia balioztatzea eta jasotako ezagutzekin lotzea, terminologia historikoa behar bezala erabiliz eta errealitate historiko berak izan ditzakeen interpretazio eta hautemate ugariak aitortuz.
10. Gaurkotasuna duen gertaera historiko edo gairen baten inguruko txostena idaztea hainbat iturritatik ateratako informazioa abiapuntu gisa hartuta (komunikabideak eta informazioaren teknologiak bilduz), aurrekari historikoak kontuan hartuta, elkarren arteko loturak aztertuz eta testuinguruaren arabera izan duten garrantziaren inguruko iritzia emanez.

Kalifikazio-irizpideak:

Idatzizko azalpenetan zein ahozkoetan Euskarazko ADIERAZPENA ULERGARRIA IZATEA ETA BERARIAZKO HIZTEGIAREN ERABILERA MENPERATZEA IZANGO DITUGU KONTUAN.

Ardatzak: Hiru dira ardatz nagusiak eta hirurak menperatu behar dituzte: teoria, prozedurak eta definizioak. Hirurak jorratuko dira azterketa guztietan.

Azterketak: Gutxienez bi froga egingo dira ebaluazio bakoitzean.

Kalifikazioa: Zenbaki bakarreko nota izango da.

Idatzizko bi frogen artean batezbestekoa aterako da baldin eta bakoitzaren nota 3 baino handiagoa bada. Ostantzean .bigarren frogan lehenengoan sartutako edukiak berreskuratu beharko ditu.

6

BERRESKURAPEN ETA INDARTZE SISTEMA

Suspentso altua atera duten ikasleek (4,5 edo gehiago) laguntza neurriak egin beharko dituzte. Besteek froga idatzia egingo dute bertan ebaluazioan zehar emandako guztia sartuko delarik. Irakasleak baloratuko du laguntza neurri praktikoak agintzearen komenientzia kasuz kasu. Azterketa egiteko unean baloratuko da ebaluazioan zehar egin gabe zituzten lanak eginda aurkeztea. Maiatzeko azterketa globalera joango da ikaslea ebaluazioaren bat ez gainditzean., ebaluazio negatibo bi izanez gai osoko azterketa egin beharko luke.

IKASTURTEA GAINDITZEKO GUTXIENEN BALDINTZAK:

Ebaluazio guztiak gaindituta izatea.

Honela ez balitz, globala egin beharko luke ikasleak.